



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

PRENTSA-OHARRA

3. lineako erabiltzaileek txartel bakarra ordainduko dute lur azpiko sarean egin behar dituzten joan-etorrietan

- **BGPko Kontseiluak erabaki du Metro Bilbaoko 1 eta 2 lineek eta Euskotrenen 3. lineak zerbitzu bakar moduan funtzionatuko dutela herritarrentzat.**
- **Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP), Eusko Trenbideak (ET/FV) eta Metro Bilbaok egin duten akordioaren arabera, linea berria abian dagoenean txartel eta tarifa berberak erabiliko dira bi operadoreetan.**

Bilbo, 2016ko apirilaren 19a.

Bizkaiko Garraio Partzuergoko (BGP) Kontseilu Nagusia gaur eguerdian bildu da Bilbon, eta hartu duen erabakiaren ondorioz Metro zerbitzuaren hiri inguruko edozein lineatan mugitzen diren erabiltzaileei ez zaie ontzi-aldaketa aplikatuko. Hau da, 1., 2. edo 3. lineako edozein erabiltzailek bidaia bakarra ordainduko du, baldin eta bidaia hori hiri inguruko geltokien artean egin bada.

3. linea abian jarri eta azaldutako premisaren arabera ustiatu baino lehen, alabaina, erabaki batzuk hartu behar dira operadoreen tarifa-eskemari lotuta; izan ere, 2017. urtean abian jarriko den trazadura berri hori metroko beste linea bat izango da herritarrentzat, bi operadore desberdinek ustiatzen badute ere. Hori da akordioaren ondorio garrantzitsuenetakoa bat. Alderdiek honako premisa adostu dute hasieran: 3. linea (San Antonio-Matiko) Metroaren beste linea bat izango da ondorio guztietarako, eta L1, L2 eta L3 lineen artean egiten den edozein bidaia Metroko bidaia bakar gisa hartuko da erabiltzailearentzat, hots, ontzi-aldaketarik egin ez dela ulertuko da.

Hurrengo urtean 3. linea ustiatzen hasten denean jarriko da indarrean akordioa bera ere. Harrezkero, Metro Bilbaok eta Euskotrenek txartel eta tarifa berberak ezarri beharko dituzte bi garraiobide horien erabiltzaileentzat, hiri inguruko sare osoak sare bakar gisa funtziona dezan txartelei eta prezioei dagokienez eta, halaber, baldintza hori aplikatu dadin. Horretarako, Metro Bilbaoren eta Euskotrenen tiket sisteman aldaketak egin beharko dira; bi operadoreen txartel guztiak aldatu beharko dira, partzuergokoak (creditrans, gizatrans edo gazte txartela) eta haienak. Akordioa sinatu duten alderdiek lantalde teknikoak izendatu beharko dituzte aurrera egin ahal izateko.

Gaur egungo zonakako sistema hartzen du oinarri gisa akordioak; horren arabera, Euskotrenen sareko punturen batean hasten edo amaitzen den ibilbide bat L3 izeneko esparrutik irten (Etxebarriko San Antonio geltokitik haratago) eta L1 edo L2 lineekin lotzen bada, beste bidaia bat izango da eta, ondorioz, ontzi-aldaketaren irizpidea aplikatuko zaio, gaur egun egiten den bezala.

Akordioaren bidez Bizkaiko Garraio Partzuergoak konpromiso gisa hartu du L3 linea abian jartzeari lotuta deskribatu diren ekintzak garatzeko Metro Bilbaoko eta Euskotreneko esparru guztietan behar diren ekipamenduaren eta sistemen erosketa eta hasierako egokitzapena finantzatzeko dituela.



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

BIDEA BERRITZEA PLENTZIAN ETA AMZ-N

Bestalde, 28/040 eta 29/040 kilometro-puntuetan bide-plataforma berritzeko eta Plentziako geltokiko 2. bideko nasa luzatzeko lizitazioa onartu du Bizkaiko Garraio Partzuergoak. Urdulizko bidea lurperatzeko lanen ondorioz tarte horretan zerbitzurik ez dagoela aprobetxatuko da. Aurrekontua 777.719,19 euro da, eta lanak burutzeko epea 3 hilabetekoa.

Azkenik, BGPk Thales enpresari adjudikatu dio Urdulizko bidea lurperatzeko lanen ondorioz Metro Bilbaoko Aginte-mahai Zentralizatuan behar den softwarea egokitzeko zerbitzua, 280.890,61 eurotan eta sei hilabetetan burutzeko.